

ELEIZA KATOLIKOA
-BILBOKO ELEIZBARRUTIAREN-
ARAUDIA
ZIGOR-ARRISKUEI
AURREA HARTZEKO



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

Aurkibidea

Atarikoak

Zehaztapenak
Hitzaurrea

1. ARAUDI ETIKOAREN EZARPEN-EREMUA ETA BETEKIZUN-IZAERA

- 1.1. Araudiari lotuta dagozan pertsonak
- 1.2. Araudiagazko atxikimendu-sistema
- 1.3. Araudiari lotutako pertsonen betekizunak
- 1.4. Pertsonakazko kudeaketa edo zuzendaritza erantzukizunak euren kargu dabezan pertsonen betekizun gehigarriak

2. ELEIZA KATOLIKOA – BILBOKO ELEIZBARRUTIAREN OINARRIAK

- 2.1. Gizatasuna
- 2.2. Gizarte ekarpen positiboa
- 2.3. Osotasuna
- 2.4. Unibertsaltasuna
- 2.5. Erizpide batasuna
- 2.6. Burujabetasuna

3. ELEIZA KATOLIKOA – BILBOKO ELEIZBARRUTIAREN JOKAERA-ARAUAK

- 3.1. Jokaera-arau orokorrak
- 3.2. Barneko jokaera-arauak
- 3.3. Jokaera-arauak erabiltzaile edo bezeroakazko hartu-emonean
- 3.4. Jokaera-arauak ahuleziazko egoeran dagozan pertsonakazko hartu-emonean
- 3.5. Jokaera-arauak erakunde hornitzaile, laguntzaile eta zerbitzu-emoileakazko hartu-emonean
- 3.6. Jokaera-arauak Administrazio Publiko eta beste Erakunde batzuekazko hartu-emonean
- 3.7. Jokaera-arauak politika edo alkarte jardueri dagokienez
- 3.8. Jokaera-arauak baliabideak erakartzeari eta kudeaketa ekonomikoari dagokionez

4. ZIGOR-ARRISKUEI AURREA HARTZEKO ARAUDIARI BURUZKO XEDAPENAK

- 4.1. Araudia indarrean sartu eta iragarri
- 4.2. Araudia aldatu
- 4.3. Araudia garatu
- 4.4. Komunikabideak
- 4.5. Araudia ulertu
- 4.6. Araudia ez bete
- 4.7. Mendeko erakundeek Araudia egokitu

Zehaztapenak

Zigor-arriskuei Aurrera hartzeko Araudia: Eleiza Katolikoa – Bilboko Eleizbarrutia osatzen dabena pertsona guztien jarduera instituzionala uneoro gidatu behar daben oinarri eta jokaera-arauen multzoa zigor-delitutzat hartzeko arriskua daben jarrerari aurrea hartzeko.

Eleiza Katolikoa – Bilboko Eleizbarrutia: Urduña (Gasteizko Eleizbarrutia) izan ezik, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta Villaverdeko harana (Kantabria) barne hartzen dauan Eleiza Katolikoaren gotzain egoitza.

Kontzeptu honen barruan sartzen dira Eleiza Katolikoa – Bilboko Eleizbarrutiaren mendeko diran eleiz instantzia eta erakunde guztiak.

Mendeko erakundeak: Berariazko nortasun juridikoa daben talde edo erakunde guztiak, irabazi asmorik izan ala ez:

- Bilboko Eleizbarrutiak sortu edo eratutakoak.
- Legez Bilboko Eleizbarrutiaren menpe dagozanak.
- Bilboko Eleizbarrutiari lotutakoak, lotura horrek lege-mendetasuna dakarrenean.

Barneko araudia: Eleiza Katolikoa – Bilboko Eleizbarrutia edo bere mendeko erakundeek, edozein izanda be formatua (gidaliburuak, galderak eta erantzunak, agiriak, eskuliburuak, protokoloak, bizikidetzak-arauak, e.a.), eta euren jardunbide ona bermatuko daben arau zehatzak ezartze aldera, kanal ofizialen bitartez argitaratu daiezan agiri guztiak.

Ahuleziatzko egoeran dagoan pertsona: Edozein izanda be bere adina, egoera ulertzeko edo onartzeko, edo irain edo mehatxuari aurre egiteko gaitasunean eragin edo gaitasuna mugatu leiken egoera fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, soziala, politikoa edo beste edozein egoera, bere askatasun-gabetzea barru, jasaten dauan pertsona.

Adibide erara, ahuleziatzko egoeran dagoan pertsonatzat joko dira:

- Adin txikikoak, batez be gurasoen edo euren legezko tutoretza dabenen babesik ez dabenean.
- Pertsona edadetuak, batez be familia babesik ez dabenean.
- Desgaitasunen bat daben pertsonak.
- Etorikin, errefuxiatu edo desplazatuak, batez be ekonomia eta gizarte bitartekorik ez dabenean.
- Bitarteko ekonomikorik ez daben pertsonak.
- Bizilekurik ez daben pertsonak.
- Gizarte bazterketa jasateko arriskua daben pertsonak.

Hitzaurrera

Araudi honek Bilboko Eleizbarrutia osatzen daberen pertsonen euren eginkizunen gauzatzean, batez be Erakundearen izenean edo onerako egindakoetan, edo Eleiza Katolikoa – Bilboko Eleizbarrutiaren misino eta helburuak lortzera bideratutakoetan, izan leikiezan jokabideak gidatu behar dabean oinarri eta jokaera-arauak jasotzen ditu.

Bilboko Eleizbarrutiaren eginkizun nagusia Barri Ona Bizkaiko probintziaren eremuan hedatzea da, Jainkoaren maitasuna eraginkortasun, praktikotasun, lekuko izate eta danak barne hartzearen bidez zabalduz, norbanako bakotxaren askatasuna, nortasuna eta dueak errespetatuz.

Betebehar hau hainbat jardueratan bideratzen da, besteak beste, Barri Onaren iragarpena, katekesia, kristau printzipioetan oinarritutako katekesia, ospakizun eta fedearen adierazpena, gizarte ekintzaren eta gizatasunezko laguntzaren bidezko karidadearen gauzatzea, konpromiso pertsonala eta alkarte bizitzaren sustapena.

Eginkizun ebanjelizatzaileak beragaz dakarzen etenbako hazkundera (kideen kopuruan, gaitasunean, agerikotasunean, agerpenean eta gizarte arrastoan) eta etenbako hobekuntza. Horregaitik Bilboko Eleizbarrutiak ondorengo helburuak landu gura ditu epe ertain/luzera:

- Lan dinamiko eta proaktiboa sustatu;
- Gizabanakoaren arlo pertsonal, sozial eta espiritualaren beharrezan erantzun deuten zerbitzuen aukera zabalagoa eskaini edo dagozanak indartu;
- Inguruko ekonomia-gizarte egoerara egokitutako egitasmoak sustatu;
- Ebanjelioaren hizkuntza gaur egungo sasoiara egokitu, gizon eta emakumeen eguneroko bizitzan erraztasun handiagoz erabilteko/ezartzeko;
- Pertsonak kristau alkartean txertatu;
- Euren siniste erlijiosoak alde batera itzita, oinarri espiritual sendoa eta Eleiza Katolikoak sustatzen dituan oinarriak bateragarri diranak dabekala erakusten daberen pertsona eta erakundeak alkarlan eraginkorrean jardun;

Bilboko Eleizbarrutiak gitxienekoen doktrina lez prestatu dau Araudi hau, Erakundearen eginkizun eta helburuak bistatik galdu eta bere ondare erlijioso eta kristau aberatsari uko egin barik, Bilboko Eleizbarrutia osatzen daberen pertsonen jarduerarako eremua era etiko arrazional eta bateratuan argi egiteko baliagarri izan daitezkan eta Erakundearen barruan betetearen kultura sendoa ezartzen lagundu daien.

Eleiza Katolikoa – Bilboko Eleizbarrutiak Araudi hau onartzeko asmoa dau, Erakundearen arrisku penalen prebentziorako sistema ezartzeko lehenengo urrats lez, azken urteetan pertsona juridikoen erantzukizun penalaren arloan gertatu diran aldaketa arauemoileak kontuan hartuta.

1. ZIGOR-ARRISKUEI AURREA HARTZEKO ARAUDIAREN EZARPEN-EREMUA ETA BETEKIZUN-IZAERA

1.1. Araudiari lotuta dagozan pertsonak

Zigor-arriskuei aurrea hartzeko Araudia Bilboko Eleizbarrutia osatzen daberen pertsona guztiak lotesten ditu eta guzti horreentzat nahitaez betetekoa da, euren karguak ordaindutakoak ala doakoak badira be. Besteak beste, honeek dira pertsona horreek:

- Gobernu- eta zuzendaritza-taldeetako askotariko kideak.
- Pertsona ahalduak eta ordezkariak.
- Jarduketa, ekintza, egitarau eta beste hainbat eremutako arduradunak.
- Aholkularitza eta kontrolerako organoetako kideak.
- Langile edo boluntarioak.

Araudia, loteslea da eta nahitaez bete beharrekoa Bilboko Eleizbarrutiaren mendeko diran erakundeentzat; honeek dagokiezan gobernu-organoen ordezkariak atxikiko jakoz.

Araudiaren ezarpena Bilboko Eleizbarrutiari lotutako pertsona fisiko edo juridikoei (laguntzaileak, hornitzaileak, azpikontratatistak, zerbitzu-emoileak, lege-mendekotasunik ez daberen erakunde partaideak, e.a.) zabaldu dakieke, borondatez edo formalki hari atxikitzen jakozanean.

Aurrerantzean, "lotutako pertsona" deituko deusegu pertsona honeei.

1.2. Zigor-arriskuei aurrea hartzeko Araudiagazko atxikimendu-sistema

Bilboko Eleizbarrutia osatzen daberen pertsonak, erakundeak aldarrikatutako oinarri etikoakaz eta jokaera-arauakaz lotzea legezko egiteko xede hutsagaz, Araudi honi atxikitzeko sistema ezartzen da, hain zuzen be, adierazpena egin araudian jasoten danagaz bat etortea eta konpromisoa adierazoz.

Pertsona fisikoak kargua onartu aurretik atxikiko dira.

Pertsona juridikoen atxikimendua dagokien gobernu-organoen ordezkarietaz egingo da, eratu aurretik mendeko erakundea bada eta, gainerako kasuetan, Bilboko Eleizbarrutiagaz lotuko dituan akordioa legezko egin aurretik.

Araudi Etikoa indarrean sartu daitenean jardunean dagozan pertsonen haren ale bat jasoko dabe aztertzeke eta, dagokionean edukiagazko atxikimendua legezko egiteke.

1.3. Araudi Etikoari lotutako pertsonen betekizunak

Araudi honi lotutako pertsonak berez ezagutu eta bete egin behar dabe; bere ezarpena erraztu, batez be bakotzak bere jardura garatu daian eremuan; araudiaren hedapen, garapen eta hobekuntza bermatzeko garatu daitezkan jaduereetan lagundu; eta arau-haustea edo araudia ez betetea dakarren edo ekarri leiken edozein gertaera ezagutu ezker horren barri emon.

Zehatzago, honeek dira, baina ez eurak bakarrik, Araudiari lotutako pertsonen betekizunak:

- Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudiak sustatzen dituan oinarri etiko eta jokamoldeak ezagutu eta euren hedapenean lagundu.
- Jarrera proaktiboari eutsi, Bilboko Eleizbarrutian Araudiaren betetea bermatzeari begira.
- Dagokionean, Bilboko Eleizbarrutiak Araudiari lotuta antolatu leiken heziketan parte hartu eta osatu.
- Araudiaren eta berez garatzeko arauen inguruan izan daikien edozein zalantza argitu.
- Era aktiboan parte hartu Bilboko Eleizbarrutian benetako kultura etikoa ezartzeko.
- Bilboko Eleizbarrutian benetako kultura etikoa zuzen ezartzeko lagungarritzat jotzen diran azalpen edo aholkuak bideratu.
- Zuhurtiaz jardun uneoro, bere jokaeraren egokitasun eta etikotasunari buruz gogoeta eginez gauzatu aurretik, eta Araudi honetan jasotakoagaz bat datorren baloratuz. Zalantzarik izan ezker, dagokion kontsulta egin.
- Araudi honen, barne araudiaren edo Legearen urratze edo haustea dakarren edo ekarri leiken edozein jokaera ezagutu ezker berehala jakitera emon.

Ezjakintasunez edo hierarkian goragoko kargua dauan norbaiten agindupean jardutea ez da aitzakia onargarria Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudi hau, barne araudia edo Legea ez betete.

1.4. Pertsonakazko kudeaketa edo zuzendaritza erantzukizunak euren kargu dabezan pertsonen betekizun gehigarriak

Pertsonakazko kudeaketa edo zuzendaritza erantzukizunak euren kargu izanda Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudi honi lotuta dagozan pertsonak ondorengo betekizun gehigarriak bete beharko dabez:

- Aitzindaritza eta konpromisoa erakutsi Araudiak sustatzen dituan oinarri etikoen eta jokamoldeen betete.
- Ardura hartu, zuzenean bere ardurapean dagozan pertsonak Araudi hau, barne araudia eta Legea ezagutu eta bete daiezan.
- Bere ardurapean dagozan pertsonak Araudiaren eta berez garatzen daben arauen inguruan, eta jokaera jakin bat gauzatzeko egokitasunaren inguruan, izan leikiezan zalantzak argitu.
- Araudi, barne araudiaren edo Legearen urratze edo haustea ekarri leiken edozein arau-hausteren edo jokaeraren barri emonez jaso daizan mezu guztiak jaso eta ikertu, edo dagokionean arriskueta arduradunarengana bideratu.
- Bere ardurapean dagozan pertsonak antzemandako irregularitasun edo arau-haustea fede onez jakitera emoteagaitik kalterik, bereizkeriarik edo diziplina-zigorrik ez jasotzea bermatu.

2. BILBOKO ELEIZBARRUTIAREN OINARRI ETIKOAK

Hona hemen Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudi hau oinarritzen dan eta uneoro Eleiza Katolikoa – Bilboko Eleizbarrutia osatzen daberen pertsonen jokaera instituzionala gidatu behar daberen funtsezko oinarriak:

2.1. Gizatasuna

“Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala” agindua, pertsona bakoitzaren banan-banako balioaren, bere nortasunaren eta bere gaitasunaren, bere duintasunaren, bere askatasunaren eta bere eskubide bortxaezinen autorpenean oinarritzen da, pertsona ahulenak lehenetsiz.

Oinarri honen erdiespenerako ezinbestekoa izango da uneoro pertsonen osotasun fisikoa eta buruko ongizatea bermatzea, tolerantzia eta aniztasunaren kulturaren garapenaren bitartez, eta Erakundeko eremu eta maila guztietan errespetu, bardintasun, zuzentasun eta inpartzialtasunerako erizpideak sustatuz, aparteko arreta eta kontua jarritz lagunarteko hartu-emonetan.

2.2. Gizarte ekarpen positiboa

“Lagun hurkoa maitatu” hori ezin da bere garapen pertsonal, espiritual, intelektual, ekonomiko eta soziala alde batera itzita ulertu.

Bilboko Eleizbarrutiak eraginkortasunez jarduten dau pertsonen sufrimentuari aurre egite aldera neurriak hartzeko eta sufrimentua arintzeko, batez be dalako pertsona horreek ahulezian badagoz, eta horretarako laguntza edo zerbitzuak eskaintzen deutez euren beharrezan araberako eta erakunde humanitarioak alkarlanean jarduten dau, inguruabarrek eskatu ezker.

Gainera, Bilboko Eleizbarrutiak jarduerak garatzen ditu hezkuntza eta katekesiaren arloan, horreen bitartez pertsonen arteko ulermenaren, alkartasunaren, karidadearen, adiskidetasunaren, senidetasunaren, lankidetzaren eta bakearen garrantzia nabarmenduz eta sustatuz.

2.3. Osotasuna

Araudiaren mende dagozan pertsonen osotasunez, zintzotasunez eta gardentasunez jokatu behar dabe euren eginkizunen gauzatzean. Inoiz ez dabe Araudi honetan, barne araudian edo Legean jasotako oinarri etikoak eta jokaera-arauak urratu leiken jarduerarik garatuko.

2.4. Unibertsaltasuna

Eleiza Katolikoak unibertsaltasunerako bokazino argia dau bere misino eta helburuetan, eta, euren berezitasunak eta egoera geografikoa kontuan hartu barik, guztientzako on handiagoa lortzeko alkarlanean jarduten daberen pertsonen, alkarteen eta zerbitzuen sare lez ulertu behar dogu.

2.5. Erizpide batasuna

Araudiaren mende dagozan pertsonen talde-lana sustatu behar dabe, erizpide batasunaz jardunez, guztiei dagokiezan oinarri etikoen pean eta Bilboko Eleizbarrutiaren misino eta helburuakaz bat, Erakundearen izen ona kaltetu edo bere interesetan eragin negatiboa izan leiken edozein jokaera saihestuz.

2.6. Burujabetasuna

Bilboko Eleizbarrutiak burujabetasuna eta autonomia dau, eta, ondorioz, aurka egin leikeo maila politiko, ideologiko edo ekonomikoko edozein esku-sartzeri, eta berari lotuta dagozan pertsonen askatasun handiagoz jokatzeko aukera emon leikie, baina beti be Erakundeak sustatutako misinoagaz, helburuakaz eta oinarri etikoakaz bat etorriz.



3. ELEIZA KATOLIKOA – BILBOKO ELEIZBARRUTIAREN JOKAERA-ARAUAK

3.1. Jokaera-arau orokorrak

A) Jokaera etikoa eta kontsultarako kultura

Araudiaren mende dagozan pertsonak etikaz eta indarrean dan legeriaren arabera jardungo dabe, Bilboko Eleizbarrutiaren izen ona kaltetu eta bere interesetan eragin negatiboa izan leiken edozein jokaera saihestuz eta egoera zalantzagarrien aurrean jarrera proaktiboari eta behin eta barriro kontsultatzeko jarrerari eutsiz.

Osootasuna eta gardentasuna lako oinarriak nabarmenduko dira Araudiaren mende dagozan pertsonak erabiltzaileakaz, bezeroakaz, erakunde hornitzaile edo zerbitzu-emoileakaz, agintari eskudunakaz edo gobernu eta administrazio publikoetako funtzionarioakaz egin daiezan hitzarmen eta transakzio guztietan, emon daien informazio guztiaren egitasuna ziurtatuz.

B) Errespetua pertsonari

Araudiaren mende dagozan pertsonak jokabide zuzen, begirunetsu eta adeitsua izango dabe eurakaz hartu-emonean dagozan pertsona guztiakaz.

Bilboko Eleizbarrutiak aintzat hartzen dau askotariko jatorri, kultura, herritartasun, heziketa, ibilbide profesional, trebetasun, eretxi... dabezan pertsonen alkartzeak dakarren aberastasuna. Horregaitik aukeraniztasun eta desbardintasuna sustatzen dau Araudiaren mende dagozan pertsona guztien garapen profesional eta pertsonalean eta adina, arraza, kolorea, sexua, erlejinoa, eretxi politikoa, jatorrizko herrialdea, gizarte jatorria, desgaitasuna,... dala-eta egin leiken edozein bereizkeriaren aurka dago.

Ez da inongo erasorik (fisikoa, psikologikoa edo morala) edo agintekeriarik edo inguru bildurgarri, kaltegarri edo iraingarri sortu leiken jokaerarik onartuko.

C) Isilpeko informazioa

Araudiaren mende dagozan pertsonak konfidentzialtasun zorrotza gordeko dabe Bilboko Eleizbarrutian euren eginkizunak garatzearen ondorioz jasotako informazioari buruz, batez be dalako informazio hori pertsonala bada edo bezeroengandik edo erabiltzaileengandik badator.

Ondorioz, Araudiaren mende dagozan pertsonak Bilboko Eleizbarrutian euren jarduera garatzeko baino ez dabe erabiliko jasotako informazioa, batez be dalako informazio hori pertsonala bada edo bezeroengandik edo erabiltzaileengandik badator.

Erabat debekatuta dago isilpeko informazioa norbere edo hirugarren batzuen mesederako erabiltea.

D) Datu pertsonalen babesa

Datu pertsonalen tratamendua guztiz arretatsu eta murriztailea izango da, indarrean dan legeria zorrotz betez.

E) Publizitatea eta komunikazioak

Bilboko Eleizbarrutiaren izenean egindako edozein komunikazio publiko (agerraldia komunikabideen aurrean, esku-hartzea gizarte sareetan, lagungarrien banaketa, ekitaldietan parte hartzea, e.a.), zuhurtziaz, zintzotasunez eta objektibotasunez gauzatuko da.

Dana dala, Araudiari lotuta dagozan pertsoneri zera gomendatzen jake: ez daiela desegokitasunez erabili Bilboko Eleizbarrutiaren edo bere mende dagozan erakundeen irudia, izena edo marka, euren eremu pertsonaletik parte hartzen daben eztabaida-leku, blog, web edo gizarte sareetan.

F) Interesen gatazka

Araudiari lotuta dagozan pertsonak inpartzialtasun eta burujabetasunez jokatu dabe euren eginkizunen garapenean, interes pertsonalen edo hirugarrenen interesen gaintik Bilboko Eleizbarrutiaren interesak nabarmentzea ahalbideratuko daben erabagiak hartuz, eta interesen gatazkaren bat azaltzen danean legez eta etikaz jokatu.

Beren-beregi baimena emoten ez bajako, Araudiari lotuta egon eta euren eginkizunak dirala-eta pertsonak kontratatzeko gaitasuna dabenek uko egingo deutse eurak onuradun edo bermatzaile bezala agertzen diran kontratazioei lotutako jardunbideak onartzeari, baldintzak jartzeari, proposamenak egiteari, txostenak prestatzeari edo beste era batera eragiteari. Uko egingo deutse, gainera, senideen edo eurakaz interesetan bat datozen pertsonen edo eurekin edozein lotura daben pertsona juridikoen kontratazioan esku-hartzeari.

Interesen gatazkaren bat agertu ezker, Araudiari lotutako pertsonak Bilboko Eleizbarrutiari jakinarazoko deutse, egoerak zenbaterainoko garrantzia dauan zehaztu eta, bateraezintasunik egon ezker, zelan jokatu argitzeko.

G) Ustelkeriaren aurka

Bilboko Eleizbarrutiak ez dau ez ustelkeriarik ez Araudiari lotutako pertsonak edo hirugarren batzuek Erakundearen izenean eroskeriak jasotzerik edo eskaintzerik onartzen.

Alde horretatik, Araudiari lotutako pertsonak ez dabe oparirik, erregaliarik, gonbidapenik, mesederik edo bestelako ordainik onartuko, ez zuzenean ezta zeharka be, erabiltzaileen, hornitzaileen, laguntzaileen, zerbitzu-emoileen, bitartekarien edo Bilboko Eleizbarrutiagaz lotutako beste edozeinen eskutik. Era berean, Araudiari lotutako pertsonak ez dabe oparirik, erregaliarik, gonbidapenik, mesederik edo bestelako ordainik egingo, ez zuzenean ezta zeharka be, jasoten dabezanen borondatean eragiteko xedeagaz.

Mugaketa horrek ez ditu barne hartzen propagandako gauzak edo balio gitxikoak edo gizarte usadioetan arrazoizkotzat jotzen diran mugak gaintitzen ez dabezan gonbidapenak.

H) Dirua zuritzea

Bilboko Eleizbarrutiak beren-beregi debekatzen dau legez kontrako ordainketak egitea eta dirua zuritzea.

I) Ingurumenagazko konpromisoa

Bilboko Eleizbarrutiak ingurumenaren hobekuntzan eta kutsaduraren prebentzinoan eraginkortasunez laguntzeko eta ingurumenaren aldeko prebentzinoaren arloan kontzientziarazino handiagoa lortze aldera egitarau didaktikoak gartzeko konpromisoa hartzen dau.

3.2. Barneko jokaera-arauak

A) Segurtasuna eta osasuna lanaren eremuan

Laneko arriskuen prebentziorako legezko eta hitzarmenezko betebeharrak beteteaz gainera, Araudiari lotutako pertsonen laneko eremu atsegin, osasungarri eta segurua sustatu eta eutsi behar dabe, jokaera kaltegarri, oldarkor edo neurrigabekoak saihestuz eta erantzukizunez baliatuz bitartekoez eta instalazinoez.

Horren haritik, erabat debekatuta dago lantokira alkoholaren, drogen edo pertsonaren jokaera asalatu leiken beste edozein substantziaren eraginean pean joatea eta laneko edozein eremutan legez kanpoko substantziak aldean eukitea, saltzea, banatzea edo prestatzea.

B) Talde eta lankidetzaren sena

Araudiari lotutako pertsonen talde eta lankidetzaren sena jokatu behar dabe Bilboko Eleizbarrutiaren misio, helburu eta interesen lorpena ahalbideratu leikien jakintza edo bitartekoak Erakundearen eta eurakaz hartu-emonan daben pertsonen eskura jarritz.

Araudiari lotutako pertsonak parte hartu dairen prozesu guztietan balioa (pertsonala, teknikoa, profesionala, e.a.) eskaintzen saiatuko dira eta euren eginkizunak ahalik eta ondoen garatzeko ezinbesteko gaikuntza lortzeaz arduratuko dira.

C) Bitartekoen erabilera

Araudiari lotutako pertsonen, Bilboko Eleizbarrutiak euren eskura jarri daiezan bitarteko eta instalazinoez arduraz baliatzeko eta guzti horreek erakundeari kalteren bat ekarri leikeon edozein erabilera okerretik babesteko konpromisoa hartuko dabe. Aparteko arretaz babestuko dira Bilboko Eleizbarrutiaren jabetza intelektual diranak edo Eleizbarrutiak euren gainean eskubideak dabezanak. Araudiari lotutako pertsonen helburu profesionaletarako baliatuko dira horreez eta horretarako baimena badabe.

Debekatuta dago Bilboko Eleizbarrutiaren edozein ondasun edo aktiboren gaineko inongo xede edo kargarik gauzatzea dagokion erakundeak beren-beregi baimenik emoten ez badau.

Araudiari lotutako pertsonen betebeharra da Bilboko Eleizbarrutiaren jabetza diran gailu elektronikoak, jasoten daben informazioa eta operatzeko darabilen softwarea barne, zaintzea eta babestea, euren suntsitzea, ostea edo erabilera desegokia saihestuz. Era berean, Araudiari lotutako pertsonen Erakundearen komunikazio-sistemak –posta elektronikoa eta interneterako sarrera- era arduratsu eta emonkorrean erabilteko konpromisoa hartuko dabe.

Beren-beregi debekatuta dago legez kanpoko programa edo aplikazioak erabiltea eta eduki pornografikoa daben eta legez kanpoko edo iraingarri diran materialak eskuratzea, ikustea, deskargatzea edo banatzea.

D) Agiriak sortu eta gorde

Araudiari lotutako pertsonen euren eginkizun eta zereginak, eta parte hartu daien egitasmoenak, dokumentatuta izango dabez. Karguak halan eskatu ezker, euren lanaren euskarri dan dokumentazioa gorde egin beharko dabe, aldatzea eta suntsitzea saihestuz. Informazio eta dokumentazio hori eskuragarri izango da beti Bilboko Eleizbarrutiaren erregistroetan, barne kontrolerako zein agintarien eskakizunei garaiz eta forman arreta eskaintzeko.

Bilboko Eleizbarrutiaren erregistroetan jaso daiten informazio eta dokumentazioa, egiazkoa, zehatza, ulergarria, eguneratua eta indarrean dan legeriagaz bat datorrena izango da.

3.3. Jokaera-arauak erabiltzaile edo bezeroakazko hartu-emonean

Araudiaren mende dagozan pertsonen bete-beteko jarduna izango dabe erabiltzaile eta bezeroakaz, zerbitzuak emotean kalidade eta bikaintasunezko estandarrik altuenak eta epe luzerako konfiantzazko hartu-emona garatzea helburutzat hartuz.

Erabiltzaile edo bezeroei emongo jaken informazioa inpartziala izango da eta edozelan be eskainitako zerbitzuaren ezaugarri, gastu eta –egon ezker- arrisku guztiak barne hartuko ditu. Pertsona batzuei ez jake abantaila edo onurarik eskainiko beste batzuen kalterako.

Bilboko Eleizbarrutiak laguntza edo zerbitzua eskaini deien pertsonen dagokiezan informazio eta datu pertsonalen inguruko konfidentziasuna gordeko da. Informazio hori hirugarren pertsonen (senideak, komunikabideak, administrazio publikoak, agintari judizialak, e.a.) helaraztea, legez ezarritako prozeduren arabera egingo da, dagokionean.

Konfidentziasuna gordeteko obligazio honek zerbitzua emoteari itzi edo erabiltzaile edo bezeroak Bilboko Eleizbarrutiagazko hartu-emona amaitu ondoren be iraungo dau.

3.4. Jokaera-arauak ahuleziak egoeran dagozan pertsonakazko hartu-emonean

Araudiaren mende dagozan pertsonen aparteko enpatia eta zuhurtziaz jokatuko dabe ahuleziak egoeran dagozan pertsonakaz, euren beharizanetara ondoen egokitzen dan laguntza edo zerbitzua emonez, dalako laguntza edo zerbitzu horren ezaugarri eta ondorioak ondo ezagutu dabezala ziurtatuz.

Norbaiten gaitasun legala erasaten danean (adin txikiko pertsonak, pertsona edadetuak, maila judizialean ezgaituta dagozan pertsonak, e.a.), legezko ordezkariak jasoko dabe zerbitzuari buruzko informazioa eta euren hartuko dabez bidezko erabagiak. Mendekotasunean dagozan pertsonen eretxia baloratu eta kontuan hartuko da, posible dan kasu guztietan.

Beren-beregi debekatuta dago ahuleziak egoeran dagozan pertsonen edo euren familiei buruzko edo Bilboko Eleizbarrutiak emoten deusiezan zerbitzuei buruzko edozein informazio intimo ezagutzera emotea, horretarako legezko betebeharririk izan ezean.

Araudiaren mende dagozan pertsonen tratu duina eskainiko deutse ahuleziak egoeran dagozan pertsonen, euren ongizate fiskoaz eta buruko ongizateaz uneoro arduratuz.

Araudiaren mende dagoan norbaitek ahuleziazko egoeran dagoan pertsona batek tratatu desegokia jasaten dauaneko proba edo susmo sendoak baditu, informazino hori Erakundeari ezagutzera emongo deutso berehala, "Adin txikikoen eta pertsona ahulen babeserako Bilboko Eleizbarrutiaren gidaliburuan" jasotakoaren arabera.

3.5. Jokaera-arauak erakunde hornitzaile, laguntzaile eta zerbitzu-emoilekazko hartu-emonean

Bilboko Eleizbarrutiak konfiantzazko, errespetuzko eta alkarren mesederako hartu-emona ezarri gura dau erakunde hornitzaile, laguntzaile eta zerbitzu-emoilekaz.

Araudiaren mende egon eta dalako erakunde horreen hautatze, kontratatze eta baldintza ekonomikoen ezartze prozesuetan parte hartu daien pertsonak inpartzialtasunez, objektibotasunez eta gardentasunez jokatu behar dabe, euren erizpidean ondoriorik izan edo eragin leiken inongo esku-sartzeri uko eginez. Gainera, ahal izan ezkerro, esklusibotasun-harremanak saihestu egingo dira.

Bilboko Eleizbarrutiak zalantza barik baloratuko dau erakunde hornitzaile, laguntzaile eta zerbitzu-emoilek Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudi honetan aurkeztutako estandar etikoen baliokideak ezartzea edo, holakorik ezean, dalako erakunde horreen gobernu-organoek Araudi honi euren borondatez eta formalki atxikitzea.

Atal honetan jasotako gidalerroak Bilboko Eleizbarrutiari laguntzen, ondasunak hornitzen eta zerbitzuak emoten deusiezan pertsona fisikoei ezarriko jakez.

3.6. Jokaera-arauak Administrazio Publiko eta beste Erakunde batzuekazko hartu-emonean

Agintari, erakunde araugile eta gainerako Administrazio Publikoakazko hartu-emonean, gardentasuna, errespetua eta lankidetzaz nagusituko dira.

Araudiaren mende dagozan pertsonak profesionaltasunez jokatuko dabe erakunde publikoakazko eta funtzionarioakazko hartu-emonetan, emoten dan informazioaren egiatasun eta osotasuna ziurtatuz eta uneoro Bilboko Eleizbarrutiaren interesak babestuz.

3.7. Jokaera-arauak politika edo alkarte jardueri dagokienez

Bilboko Eleizbarrutia atxikitze politiko bako erakundea da. Halanda be, Araudiaren mende dagoan edozeinek parte hartu ahal izango dau, aske eta bere borondatez, gura dauan jarduera eta kanpaina guztietan, afiliatu edo zale lez, beti be pertsona horrek Erakundean dituan zereginen gauzatzea oztopatzen ez badau eta horretarako Bilboko Eleizbarrutiaren izena, bitartekoak, aktiboak edo instalazioak erabilten ez baditu.

Alderdi politikoakazko edo Bilboko Eleizbarrutiaren berariazko helburu publikoak gaintu eta helburu publikoak dabezan bestelako erakunde edo alkarteakazko lotura, kidetza edo lankidetzaz, eta euren aldeko ekarpen edo zerbitzuak, jarduera pertsonalak dirala argi itzita gauzatuko dira, Bilboko Eleizbarrutia inondik inora nahastatu barik.

Edozein kargu publiko onartu aurretik Bilboko Eleizbarrutiari ezagutzera emotea gomendatzen jake Araudiaren mende dagozan pertsonak, dalako kargu hori gauzatzean bateraezintasun edo murrizketarik dagoan zehazteko.

3.8. Jokaera-arauak baliabideak erakartzeari eta kudeaketa ekonomikoari dagokionez

Baliabideen erakartze eta kudeaketa ekonomikoa, indarrean dan legeria zorrotz betez egingo da, aparteko arreta jarritz ustelkeriaren, iruzurraren, eroskeriaren eta dirua zuritzearen prebentzinorako araudian.

Diru publikoa edo pribatua erakartzeko erabili daiten informazioa zehatza izango da, egitasmoaren misinoa islatu eta onuradunen duintasuna errespetatuko dau.

Beren-beregi debekatzen da Administrazio Publikoei edo Gizarte Segurantzari emoteko ezinbesteko diran baldintzak faltsutuz edo esleipena galaraziko eukean informazioa ezkatutuz diru-laguntzak, laguntasunak edo onurak eskatzea.

Debekatuta dago dohaintza partikular edo korporatiboak onartzea, honeek Bilboko Eleizbarrutiaren misino, helburu eta oinarri etikoen edo batzen dan diruaren xedearen aurka dagozanean.

Diru-laguntzen, laguntza publikoen, dohaintzen edo ekarpen pribatuen hasierako helburuak nabarmen aldatzea be debekatuta dago.

Bilboko Eleizbarrutiak baliabideak erakartzeko jardunbidean euskarri dan informazioa (dohaintza-emoileen nortasun-agiriak, diru-laguntzak justifikatzeko agiriak, egindako sarreraren egiaztagiriak, e.a.), gitxienez hamar (10) urtez gordeko da.



4. ZIGOR-ARRISKUEI AURREA HARTZEKO ARAUDIARI BURUZKO XEDAPENAK

4.1. Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudia indarrean sartu eta iragarri

Araudi hau <http://www.bizkeliza.org/> Bilboko Eleizbarrutiaren web orrialdean argitaratzeaz batera sartuko da indarrean.

Jenteari ezagutzera emote aldera, Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudia, eskura diran askotariko bideetatik (aldizkariak, web, gizarte sareak, irratiak...) zabaldu eta hedatuko da Eleizbarrutiko Erakundearen gobernu-organoetan eta zuzendaritza-taldeetan.

Gainera, Bilboko Eleizbarrutiak azalpen edo heziketarako saioak antolatu leikez berari lotutako pertsonen artean Araudiaren edukia zabaltzeko eta horretan sakontzeko.

4.2. Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudia aldatu

Araudi hau iraunkorra izatea nahi da, irmoa eta nagusiki inspiratzailea da-eta, eremu juridikotik ez ezik etikatik gertuago dagozan oinarriak eta jokamoldeak jasotzen ditualako.

Horregaitik, Eliza Katolikoa-Bilboko Eleizbarrutiaren interesak gomendatzen dauanean baino ez da aldatuko Araudiaren edukia.

Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudia garatu

Bilboko Eleizbarrutiak benetako eta legez beteteko kultura etikoa ezartzeko dauan konpromiso sendoaren isla da honako Araudi hau.

Bilboko Eleizbarrutiak funtsezkotzat jotzen dau Araudi honek sustatzen dituan oinarri etikoak eta jokaera-arauak juridikoki sendotzea, zigor-arriskuen kudeaketa eta prebentzinorako sistema ezarri eta Araudia asmoen adierazpen hutsean geratu ez daiten.

Alde horretatik, Araudi honen garapenean, jasan leikiezan arrisku penalak aztertu daiezala eta, bakotxaren gaitasun, ezaugarri eta beharrezan araber, Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Eskuliburua prestatu daielara eskatzen deutse bere mende dagozan erakundeei.

Komenigarritzat jotzen danean, kopuruaren eta erakunde bakotxaren berezitasunen araber, Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Eskuliburuaren ordez Jarduerarako Gidaliburua eratu daiteke, dalako erakunde horren prozesu edo jardueretan deliturik ez egiteko jardunbide zehatzak jasoz.

Hori dala-eta, Bilboko Eleizbarrutiak Araudi honen edukia garatzeko, zehazteko, zabaltzeko edo betearazteko beharrezkotzat jotzen dauan barne araudi oro prestatu, antolatu, bildu, aldatu eta ezabatu leike.

4.4. Komunikabideak

Araudiaren mende dagozan pertsonen euren zerbitzuak eskaintzen dabezan erakundean edo Bilboko Eleizbarrutian bertan hierarkian euren gaineratik dagozanengana jo leikie, Araudia ez betetzearen inguruan jakin daben zerbait ezagutzera emoteko edo Araudiaren eduki edo ezarpenaren inguruan sortutako edozein zalantza argitzeko.

Jakinarazpenak idatziz egitea gomendatzen da, eta jasoten dabezan erakundeko pertsonen sekretuan, isilpean eta konfidentziasunean gorde behar dabe.

Jakinarazpenaren xedea balizko irregulartasunen edo arau-hauste salagarrien barri emotea bada, ezinbestekoa izango da gertaeraren zehaztasunak emotea eta, dagokionean, salaketari eutsiko deutesen probak aurkeztea.

Jakinarazpena gauzatu daian pertsona ondo identifikatuta egongo da. Jakinarazpen faltsu edo maltzurren aurreko segurtasunerako neurri lez, ez da jakinarazpen anonimorik tramitatuko, jakinarazpenean aurkeztutako gertaerek aparteko larritasuna izan eta ikertzea komeni dala uste danean izan ezik.

4.5. Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudia ulertu

Hona hemen hainbat jarraibide Araudi hau zuzen ulertzeko, Araudiaren mende egon eta argibideren bat behar dauan pertsonari hierarkian goragoko karguan dagoan norbaitengana jotea edo Komunikabideen bidez kontsulta egitea eragotzi barik.

- Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudi hau ez da indarrean dagozan barne arauen ordezkotza, horreen laburbilduma baino, beste oinarri etiko eta jokaera-arau batzuk erantsiz.
- Araudi honen edukia nagusituko da beronegaz kontraesanegon egon daitekezan barne arauen gaineratik, azken honek oinarri etiko edo jokaera-arau zorrotzagoak ezartzen ez badabez.
- Araudi hau Bilboko Eleizbarrutiaren nortasunari arreta jarritz ezarri eta ulertu beharko da, sustatzen dituan oinarriak errespetatuz, bere misino eta helburuakaz bat etorritz eta uneoro honek zerbitzatzen dituan pertsonen osoko ona ahalbideratuz.
- Araudi hau ezartzearen ondorioz ez da une bakoitzean indarrean diran arauen eta legezko xedapenen urratzerik gertatuko.
- Araudi honen klausularen bat legez kontrakoa, baliogabea edo eragin bakoa bada, ez dau eraginik izango gainerako eraginkortasunean.
- Araudian erabilitako aurkibide eta idazpuruak erreferentziarako baino ez dira sartzen eta ez dabe eraginik izango euren interpretazioan.

4.6. Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudia ez bete

Araudiaren mende dagoan edonork Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudia edo, dagokionean, garatzen dauan araudia ez betetzea konfiantza galtzeko ustezkotzat joko da.

Araudia betetzen ez dauanari zigorra ezarri ahal jako indarrean dan eta ezarri dakikeon legediaren arabera eta, arau-haustearen larritasunak eskatu ezkerotz, Bilboko Eleizbarrutia hartu-emon bertan behera izteko aukeraz baliatu daiteke, edozelakoa izanda be hartu-emon hori (lanekoa, merkataritzakoa, borondatezkoa, e.a.).

Arau-haustea legez kontrako jarduera zibil edo penala danean, Bilboko Eleizbarrutiak Araudia beteten ez dauanarren gain itzi leike dagokion erantzukizuna.

4.7. Mendeko erakundeek Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudia egokitu

Mendeko erakundeek euren ezaugarri eta beharizanetara egokitu leikie Araudiaren edukia, aurretik Bilboko Eleizbarrutiaren baimena jasota. Zehatz-mehatz zera egin leikie:

- Misinoa eta helburuak mendeko erakundearen misino eta helburuetara egokitu.
- Erabilitako hizkuntza doitu, baldin eta Bilboko Eleizbarrutiak proposatutako estandar etikoaren baliokideak ezartzea bermatzen badau.
- Mendeko erakundearentzat garrantzitsu diran oinarri etiko edo jokaera-arauetan sakondu.
- Mendeko erakundearen logoa erantsi, Bilboko Eleizbarrutiarena kendu ala ez.
- Araudi honen edukiaren irudikapen huts izanda be, mendeko erakundeagaz hartu-emona daben Araudiari lotutako pertsonen eta hirugarren pertsonen artean zabaltzeko erakargarriago egingo daben ikusmen- eta promozino-baldintza batzuk beteko dituan agiria prestatu.
- Mendeko erakundea berariazko Komunikabideaz hornitu.

Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudi honen edukia nagusituko da mendeko edozein erakundek egindako edozein egokitzapenen gaineratik, dalako egokitzapen horrek oinarri etiko edo jokaera-arau zorrotzagoak ezartzen ez baditu.

Debekatuta dago Araudi Etikoaren edozein egokitzapen argitaratzea eta zabaltzea, aurretik Bilboko Eleizbarrutiak onartu ez badau.

*En Bilbao 2021.eko abenduaren 29 (e)an.
Joseba Segura Etxezarraga
Bilboko Gotzaina*

**ZIGOR-ARRISKUEI AUREA HARTZEKO ELEIZA KATOLIKOA – BILBOKO ELEIZBARRUTIAREN
ARAUDIAREKIKO ATXIKIMENDUAREN ADIERAZPEN ARDURATSU ETA BORONDATEZKOA
(PERTSONA FISIKOAK)**

IZENA _____

ABIZENAK _____

N.A.N _____

KARGUA _____

ERAKUNDEA _____

Neure izenean eta eskubidez jokatzuz, **ADIERAZTEN DOT**

- Badakidala Bilboko Eleizbarrutiak Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudia dauana.
- Ulertzen eta onartzen dodala Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Bilboko Eleizbarrutiaren Araudia.
- Neure borondatez bat egiten dodala indarrean dan Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Bilboko Eleizbarrutiaren Araudiaren idazkiagaz, osorik neure eginez.
- Konpromisoa hartzen dodala bertan jasoten diran oinarri etikoak, jokaera-arauak eta gainerako betebeharrak beteteko.
- Ezagutu eta berehala emongo dodala Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudiaren, Bilboko Eleizbarrutiaren barne araudiaren edo legearen urratzea dakarren edo ekarri leiken edozein jardueraren barri.
- Konpromisoa hartzen dodala Bilboko Eleizbarrutiak Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Araudiaren edukinari lotuta antolatu daiezan azalpen edo heziketarako jarduera eta saioretan parte hartzeko, eta batez be indarrean dan idazkian egindako aldaketak ezagutzera emoteko edo nire karguaren garapenean beren-beregi eragina daben alderdietan sakontzeko egin daitezanetan.

Dagokiozan xedeetarako, agiri hau sinatzen dot.

_____ (e)n (lekua), _____ (e)an (data).

**ZIGOR-ARRISKUEI AUREA HARTZEKO ELEIZA KATOLIKOA – BILBOKO ELEIZBARRUTIAREN
ARAUDIAREKIKO ATXIKIMENDUAREN ADIERAZPEN ARDURATSU ETA BORONDATEZKOA
(PERTSONA JURIDIKOAK)**

PERTSONA JURIDIKOA

IZEN SOZIALA _____

I.F.Z. _____

HELBIDEA _____

ORDEZKARIA

IZENA _____

ABIZENAK _____

N.A.N. _____

KARGUA _____

_____ (e)ko (izen soziala), _____ (e)n (bazkide edo akziodunen) Batzorde Nagusiak, _____ (e)an ospatu eban batzarrean, _____ (aho batez edo kapital sozialaren %xaren gehiengoaz) ondorengoa adostu dauala adierazoten dau:

- _____ (izen soziala) Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Bilboko Eleizbarrutiaren Araudiari "atxikitako pertsona" lez autortu.
- Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Bilboko Eleizbarrutiaren Araudiari bere borondatez atxiki.
- Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Bilboko Eleizbarrutiaren Araudiak jasoten dauan guztia onartu eta bere egin.
- Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Bilboko Eleizbarrutiaren Araudian jasoten diran oinarri etikoak, jokaera-arauak eta gainerako betebeharrak beteteko konpromisoa hartu.
- Zigor-arriskuei Aurrea hartzeko Bilboko Eleizbarrutiaren Araudiaren edukia zabaldu eta betearazo _____ (izen soziala) osatzen daben edo bertan zerbitzuak eskaintzen dabean pertsonen artean.

Dagokiozan xedeetarako, atxikimendu-agiri hau sinatzen dot.

_____ (e)n (lekua), _____ (e)an (data).

